

Donostia, 2018ko azaroaren 16a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### OLETAKO HAURTXOKOAREN ETA GAZTELEKUAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluekin bat, honako KONTROL-MOZIO hau aurkeztu du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak hilabete honetan egindako interpelazioa dela eta.

## JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 3an Amarako haurtxokoa eta gaztelekua ireki zituen Donostiako Udalak, eta, adierazi zuenez, Oleta plazan izango dira ikasturte honetan eta hurrengoan.

Ekainean, Irabazi Donostiak, Anoetako estadioa berritzeko obrak zirela eta Ernest Lluch ziren haurtxokoa eta gaztelekua itxi egin behar zituztela iragarri zutela ikusirik, eta ikasturtea hastekoan adin txikikoek aisialdirako alternatiba duinik ez zutela izango, estatuko Gobernuarekin negoziatzeko eskatu zion udal Gobernuari estatuko Gobernuaren Azpiordezkaritzak Pio XII.aren plazan duen eraikinean toki batzuk uztea, Donostia Kulturak Ernest Lluch kultur etxean ematen zituen zerbitzuek han jarri ahal izateko.

Ekainean bertan, batzordeak izan zuen bilera batean, zinegotzi ordezkariak onartu egin zuen bi gune horientzat espazio alternatibo bat lortzea nekeza zela eta, hala, Anoetaren atzealdeko skate pisten inguruan edo Atano III.a pilotalekuaren ondokoko aparkalekuan barrakoi batzuk jartzeko pentsamendua izan zutela. Eta, azkenean, ailegatu dira barrakoiak, Oletan jartzeko ailegatu ere.

Ohartarazi eta Udal gobernuak Estadioko obrak egiten ziren bitartean Ernest Lluch kultura zentroaren kultura zerbitzuen instalazioak lekuz aldatzeko premia izango zuela jakin arren, aurreikuspenik eza erabatekoa da eta barrakoiaren irtenbidea onartezina da, are gehiago Amara

auzoan bertan kalitatezko kultura arloko zerbitzu publiko bat emateko moduko alternatibak daudenean.

Barrakoen alternatibak erakusten du udal gobernu honentzat zerk duen lehentasuna; izan ere, ez baitie Ernest Lluch-en ziren haurtxokoari eta gaztelekuari toki duin batzuk emanda erantzun, eta, guk dakigula, Udalaren eskumen eskusiboa da horiena. Guk uste dugu udal Gobernuak beste aukera bat eskaini behar duela ikasturte honetarako eta hurrengorako, baldintza duin batzuk izango dituen aukera.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, honakoa aurkezten dugu:

#### KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Udaltzako udal gobernuari eskatzen dio hiru hilabete baino lehen beste toki duin eta egonkor bat lortzeko Ernest Lluch-en ziren haurtxokoarentzat eta gaztelekuarentzat, eta negoziatzen segitzeko Estatuko Gobernuarekin Pio XII.ren plazako Gobernuaren Azpiordezkaritzaren eraikinean beharrezkoak izan litezkeen guneen lagapena, Donostia Kulturak Ernest Lluch Kultur Etxean eskaintzen zituen zerbitzuak hara eramateko.

Izpta.: Amaia Martin Garin  
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea